

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Akats zuzenketak euskarako 2 irakasle/normalizatzaile plaza betetzeko eta lan-poltsa bat sortzeko deialdiaren oinarrietan.

2025eko maiatzaren 30ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (101. zk.) euskarako 2 irakasle/normalizatzaile plaza betetzeko eta lan-poltsa bat sortzeko deialdiaren oinarriak argitaratu ziren. Deialdiaren oinarrietan akats bat antzeman denez, 2025eko ekainaren 18an sinatutako ebazpen bidez,

EBATZI DA

Lehena. Zuzenketa hau egitea:

Zortzigarren oinarrian, lehiaketa-fasea atalean:

— *Honako hau esaten duenean:*

Hirugarren ariketaren behin betiko emaitzak argitara ematen direnetik, 10 egun balioduneko epea ezarriko da merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko.

— *Honako hau esan behar du:*

Hirugarren ariketaren behin betiko emaitzak argitara ematen direnetik, 10 egun balioduneko epea ezarriko da merezimenduak egiaztatzeko.

Bigarrena. Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Eibarko Udalaren web orrian argitaratzea.

Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eibarko Udaleko Alkatetzari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Nolanahi ere, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Eibar, 2025eko ekainaren 18a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(5211)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Corrección de errores en las bases de la convocatoria para la cobertura de 2 plazas de profesor/a / normalizador/a de euskera y la creación de una bolsa de trabajo.

El 30 de mayo de 2025 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (n.º 101) se publicaron las bases de la convocatoria para la cobertura de 2 plazas de profesor/a / normalizador/a de euskera y la creación de una bolsa de trabajo. Habiéndose observado un error en las bases de la convocatoria, por resolución de alcaldía de 18 de junio de 2025,

SE HA RESUELTO

Primero. Realizar la siguiente corrección:

En la base octava, en el apartado de fase de oposición:

— *Donde dice:*

Con la publicación de los resultados definitivos del tercer ejercicio, se establecerá un plazo de 10 días hábiles para la alegación y acreditación de méritos.

— *Debe decir:*

Con la publicación de los resultados definitivos del tercer ejercicio, se establecerá un plazo de 10 días hábiles para la acreditación de méritos.

Segundo. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Eibar.

Contra la presente resolución, se podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía del Ayuntamiento de Eibar, en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Eibar, a 18 de junio de 2025.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(5211)